

TXIRRINDULARITZA ■

Txomin
Perurenak
zuzenduko du
Euskadi taldea

R.B. / BILBO

Txomin Perurena izango da Euskadi txirrindulari taldeko zuzendaria, atzo Bilbon izandako prentsaurreko batean Miguel Madariaga eta Jaime Ugarte talde honetako lehendakari eta lehendakariordeak esan zutenaren arabera. Euskadi taldea datorren denboraldian estreinatuko da, oraindik ere taldea nortzuek osatuko duten aditza eman ez duten arren. Nolanahi ere, zortzi edo bederatziz profesional izango dira, afizionatu mailako beste zazpi edo zortzi gizonekin batera.

Jaime Ugartek argi eta garbi utzi nahi izan zuen Euskadi taldea ez dela beste talde batzuetan kontratua duten gizonak fitxatzeko borrokan sartuko. Gauzak horrela, ikusi egin beharko da nortzuk diren aurtengo denboraldian kontratua amaitzen duten gizonak. Julian Gorospe horietariko bat da. Taldearen aurrekontua 300 milioi pezetakoa da, baina jantziak Etxeondo etxeak ipiniko ditu, bizikletak Orbea izango dira eta kotxei dagokienez ere beste eskaintza batzuk daude.

Gauzak horrela, Euskadi txirrindulari taldean parte hartu nahi dutenek zabalik dute euren dirua sartzeko epea. Hogeita bat urtetik gorakoek hamar mila pezeteta eta bost mila hogeita bat urtetik beherakoek.

PILOTA

Unidas eta Eskulari-Pilotaberri
gaur Etxegaraten biltzekoak dira

Betiko enpresen arteko haustura baieztatu daiteke bilera horretan

Empresas Unidasek
1987an

Eskulari-Pilotaberriekin sinatutako akordioa baliogabea dela dio eta, ondorioz, enpresa independente bezala aritzeko asmoa ere agertu du. Gaur Eskulari-Pilotaberriko ordezkariekin hitz egingo dute, baina dirudienetz zaila izango da adostasunik lortzea.

DONOSTIA

Asegarce pilotaren munduan enpresa bezala funtzionatzen hasi zenetik, gauzak asko aldatu direla argi dago. 1987an Unidas eta REUREk kontratua sinatu zuten, beren artean erasorik egon ez zedin. Orain, ordea, Unidasek kontratu hori baliorik gabe uztea erabaki du, «bakoitzak bere aldeetik segitzea baita onena, bakoitzak bere koadroarekin».

Gaur Etxegaraten egingo den bileran, Empresas Unidas eta Eskulari-Pilotaberri arazo hau eztabaidatuko dute, baina ez dirudi adostasunik lortzeko aukera handirik dagoenik. Unidasekoek honezkero erabakia hartuta dutela dirudi.

«Akordio zehatzak egin daitezke, baina leialtasunez jokatu behar dugu». Bai Unidasek eta baita REUREk ere Asegarcerekin lehenengo kontaktuak izan dituzte itxuraz —hori izan daiteke, hain zuzen ere, betiko enpresen arteko hausturaren arrazoi nagusia— eta, beraz, aurrerantzean aldaketa dextente ere izan daitezke. Dena den, gaurko bilerak zer



Pala jokalaria protagonista dira azken egunotan Carmelo Baldan. SIMAL

ematen duen ikusi egin behar.

Carmelo Baldan pala partiduak izango dira ikusgai gaur, azken egunotan hasitako ohiturari jarraituz. Lehenengo partiduan Garma eta Nuñezek, Landea eta Zabalaen kontra jokatu dute. Ondoren Iturzaeta-Astola eta Sanchez-Torre bikoteak ariko dira lehian.

JOKALARI Zesta-
UGARI punta
BURUZ-BURUKOAN neurketak

ere ez dira faltako. Goixerri-Olasagasti eta Eleizgarai-Jauregi izango dira hirugarren partiduan, eta Ithurriau Gaztañagak Goya I-Goya II bikotearen kontra jokatu dute.

Partaidetza handia izango du laster jokatu den Euskadiko buruz-buruko zestapunta txapelketak. Gauzak horrela, honako pilotari hauek hartuko dute parte aurreneko fasean: Arriaga, Konpa, Unanue, Robles, Felix, Arkarazo, Jauregi, Etxalus eta Baldako koadroko bi pilotari (Goixerri, Lertxundi, Azti eta Ithurriaren artean irtingo dira).

Pilotari guzti hauek kanporaketa batzuk jokatu dituzte eta bi besterik ez dira hurrengo fasea pasatuko.

Lehen fasetik etorritako bi pilotarien eta Remen, Uriarte, Txikito Bolibar eta Alberdiren arteko liga izango da. Liga amaitu eta eta finalak jokatu dira.

GOLFA

Lee Janzenek
irabazi du
EEBBetako Irekia

SPRINGFIELD

Lee Janzen estatubatuar irabazi du aurtengo EEBBetako Irekia, 272 kolperek onena izan baita. 28 urte ditu eta bere aurreneko Grand Slam-a da. Lau jardunaldietan zehar, erregularitatea izan da bere armarik onena, guztietan 70 kolpetik behera ibili baita. Orain arte, historian jokari bakar batek lortua zuen hori.

EEBBetako Ireki hau estatubatuarren torneo izaten da, beti etxean gertatzen baita txapela. Aurtenean ere, horrelaxe izan da. Euren dominioa begibistan dago: sailkapen orokorreko lehen hamarretatik zortzi bertakoak dira, bat australiarra (Craig Parry) eta beste bat hego afrikarra (Ernie Els).

Janzenek txapelaz gain, 36 milioi pezeta (1.6 milioi libera inguru) patrikaratuko ditu eta bigarren izan den Payne Stewart estatubatuarra erdia.

Olazabalek porrot egin zuen, bigarren jardunaldian mozketak gainditzerik ez zuelako izan.

SAILKAPENA

1. Janzen	272
2. Stewart	274
3. Parry	277
... Azinger	277
5. Watson	278
... Hoch	278
7. Funk	279
... Henke	279
... Els	279
... Floyd	279

TENISA

Agassi, arazorik gabe lehen egunean

LONDRES

Atzo hasi zen Wimbledon-eko Tenis Txapelketa eta aurreneko jardunaldian ez zen inolako ezustetarik izan, edizio hau itxerakoan genituen emaitzetan behintzat. Iaz gizonetako txapeladun izan zen Andre Agassi estatubatuarra Bernd Karbacher alemaniararekin neurtu zuten bere indarrak eta ez zuen inolako arazorik izan gaitzitzeko. Aurreneko setean bota behar izan zuen izerdi gehien, 7-5 irabazteko. Beste bietan ordea 6-4 eta 6-0.

Malivai Washington estatubatuarra ere aurrera egin du, Guillaume Raoux frantziarra

kanpoan utziz. Txapelketako hamalagarren zerrendaburua den Malivai Washingtonek latz borrokatu zuen partidu osoan zehar, frantziarrak gauzak zail jarri zizkiolako. Bost set jokatu bidali zuen etxera: 4-6, 6-1, 1-6, 6-2 eta 6-3.

Agian jardunaldiko ezuste aipagarriena Richaey Reneberg-ek eman zuen, Stephane Simian frantziar ezezagunaren kontra galdu egin zuelako: 3-6, 7-5, 4-6, 7-6 (7-4) eta 6-3. Aaron Krickstein, Luis Herrera, Andrew Foster, Jared Palmer, Todd Martin eta Paul Kilderryk ere aurrera egin dute.

Emakumezkoetan, hamargarren zerrendaburua den Magda-

lena Maleeva bulgariarrak egun lasaia izan zuen, bere partidua erraztasun osoz atera baitzuen aurrera: 6-2 bikoitzez gaitzitu zuen Leila Meskhi.

Amanda Coetzter hegoafrikarrak partidu zailagoa izan zuen Sandrine Testud frantziarraren aurka. Partiduko aurreneko seta 6-3 bereganatu zuen hegoafrikarrak, bigarrena emaitza berdinez galdut. Azkenengo seta ere 6-3koa izan zen, baina kasu honetan Amanda Coetzterren jokariaren alde.

Shaun Stafford eta Nicole Arendt estatubatuarrek bigarren kanporaketarako txartela irabazi zuten, Silke Meier eta Isabelle Dremiongeot-i gailenduz.



Atotxako Udal Futbol Zelaia

— Ekainak 22, asteartea —
* 17.30etan:

REAL SOCIEDAD ETA ATHLETICeko BETERANOAK

* 20.30etan:

REAL SOCIEDAD DE FUTBOL - EUSKADIKO SELEKZIOA

GIPUZKOA ENPARANTZAKO "BIDASOA TABERNAKO"ko LEHIATILETAN SALMENTA:

- Larunbata 19, 17etatik 20etara.
- Igandea 20, 11etatik 13 etara.
- Astelehena 21, 11etatik 13etara eta 17etatik 20etara.
- Asteartea 22, 11etatik 13etara.

ATOTXAKO LEHIATILAK:

- Asteartea 22, 18etatik aurrera.

Ohizko saltoki laguntzaileetan ere gauzatuko salmenta.

SALNEURRIA:

TRIBUNA	2.000.
ERDIKO PREFERENTZIA, LEHENENGO ILARA	1.500.
ERDIKO PREFERENTZIA, BIGARREN ILARA	1.400.
ERDIKO PREFERENTZIA	1.100.
PREFERENTZIA	1.000.
HAURREK (14 urte arte)	200.

BAZKIDEAK:

- HILABETEKOK: APIRILA - MAIATZA-EKAINAKO DIRUAGIRI TXARTELAK.
- EPEKAKOK: 1993ko BIGARREN EPEAREN TXARTELAK.
- URTE OSOKOK: 1993ko TXARTELAK.